

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MANZANOSKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda, eta kobratzeko moduan jartzea, borondatezko epean, 2019ko lehen seihilekoko ordainagiriak

Etxeak edateko urez hornitzearen tasa (2019ko lehenengo seihilekoa) ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda egin da, eta 2019ko abuztuaren 22an onetsi da. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikulua 3. apartatua xedatutakoaren arabera; dena dela, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazi diren epean barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2019ko irailaren 25ean hasi eta urriaren 25ean bukatuko da, biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2019ko urriaren 3an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Internet bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Manzanos, 2019ko abuztuaren 22a

Errejidore-lehendakaria

FRANCISCO JAVIER ARGOTE URCELAI